

Foru Aldundiak 221.593 euro bideratuko dizkio Caritasek kudeatutako gizarteratze programa bati

Proiektuaren barruan lanean hasi aurreko eta lanerako prestakuntzako lantegiak daude, gizarteratzera bideratutako zerbitzua eskaintzeko gizartetik baztertuta bizi diren pertsonen

Emilio Sola foru diputatuak eta Maite Sebal erakundeako presidentek lankidetzan hitzarmena izenpetu dute

Gasteiz, 2019ko azaraoaren 12a. Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak eta Maite Sebal Gasteizko Elizbarrutiko Cáritaseko presidentek lankidetzan hitzarmena izenpetu dute Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) eta gizarte entitatearen artean, lurraldean gizarteratze programa bat garatzeko bi esku hartze mailarekin: lanerako prestakuntza eta lanean hasi aurrekoa. Esku hartzea lehenengo harreran bertan hasten da, eta lantegietara jotzen duten pertsonen haur ematen zaie: orientazioa, laguntza, prestakuntza, norbere gaitasuna, sustapen soziala eta gizarteratze eta laneratzea. Horretarako 221.593 euro bideratuko ditu aurten.

Bi programa horietan 150 plaza daude: 90 plaza lanerako prestakuntzako lantegietan, eta gainerako 60ak lanean hasi aurreko jardueretan.

- Lanerako prestakuntza: Abetxukun dago kokatuta, eta bertan eskulanak egiten dira eskulan eta koadernatze lantegietan, bai eta lehenengo hurbilketa bat ere lan mundura.
- Lanean hasi aurrekoa: Gamarrako industrialdean dago kokatuta, eta han birziklatzen dira arropa, oinetakoak, jostailuak eta liburuak Jarduera horiez gain, badira nekazaritza eremuak ere, baratzeak, Gasteizen, Amurrion, Urduñan, Zuian, Iekoran eta Oionen.

GOFEk 1999. urteaz geroztik dihardu Cáritasekin lankidetzan gizarteratze programak sustatzeko, zeinetarako guztira 221.593 euro bideratuko baititu aurten. Lankidetzan horri esker, Arabako Foru Aldundiak zerbitzu bat eskaintzen du, gizartetik baztertuta bizi diren pertsonak gizarteratzeko, banan-banako laguntza emanez helmuga gizarteratzea duen ibilbide batean. Bestalde, Caritasen jardunaren



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

ardatzak dira lagun egitea eta arreta ematea kaltebera diren pertsoneri, eta detektatzea zer gabeziak eragozten dieten autonomia handiagoa izatea eta autoestimua hobetzea, eta zein diren esku hartzerik egokienak haien egoera gozatzeko, gizartean beren tokia hartzen laguntzea helburutzat hartuta.

Programa horretan parte hartzen duten pertsonak prestakuntza fase desberdinetan daude; hortaz, ibilbide eta premia desberdinak dituzte, eta horrek parte hartzaileen banan-banako gaikuntza eta prestakuntza prozesua eskatzen du.